

TOKIKOM

2013ko azaroa | 131. zenbakia

ai! ar!

t...aria

Sara Gandara, kazetaria

Zuzenean

ASISKO UR MENETA TOTI MARTINEZ DE LEZEA EUSKARA REN EGUNA



HARROTASUN LARANJA

[1.a]
MUNDUAN

199 €*

*Motozerra MS 170-D



STIHL

NEKAZARITZA ETA LOREZAINZARAKO TRESNERIA SALDU ETA KONPONTZEN DUGU



BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Asier Oruetebarria, Txelu Revuelta, Sabin Arana, Txerra Rodríguez, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKORI aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Asisko Urmeneta



22 Toti Martinez de Lezea



24 Euskararen Eguna

- 4** Eritxia
- 5** Laburrak eta albisteak
- 11** Iruditan... Perretxiko sarigarria
- 12** Gurean izan da... Asisko Urmeneta
- 14** Gaztea eta... Xabier Zubieta
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Sara Gandara, kazetaria
- 22** Toti Martinez de Lezea, idazlea
- 24** Euskararen Eguna
- 26** Arantza mendi edo Monte Gorbea itsasontzia
- 28** Euskara eta kanposantuak
- 29** Zorionak!
- 30** Elkartek/Taldeak... Sondikan Berton
- 32** Taberna baino gehiago
- 34** Hileko eskaintzak
- 35** Aikorrizketan... Txatarrero!!!
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabalak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alertza Ibeia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 941 121
www.aislamientosderio.com

Gabonetako erosketak non?

Gabonak heltzeaz dagoz, kristi-nautasunak agindutako egutegi honetan azpimarratutako sasoiak da, bai umeak etxean daukaguzalako, familiagaz batzen garalako, fede hutsagaitik edo beharbada gus-tukoak ez doguzalako; baina hor dagoz. Askok gorriz azpimarratuta daukiez, baina ez nabarmentzeko. Aurreko hilak be holan dagoz, gorri-gorri; urtea (edo azkenengo urteak hobeto esanda) holangoa izan da eta. Horreentzat be, hor dagoz Gabonak. Egoera ekonomikoak ez dau lagun-zen erosketa eta opari handirik egiteko, horregaitik zerbait gasteteko aukerea daukagunok ondo gastau behar dogu. Ondo gastau eta leku egokietan gainera.

Herrietako betiko dendetan itxi behar doguz diruak, gitxi badira be. Ahaztu *megahipermaxarteacenteron-do* horreek egun batzuetan. Egia da holakoetan dana eskuragarri daukaguna, koinatuarentzako galtzerdieta-



ASIER ORUIXABARRIA
(Irakaslea)

tik hasita ontziraturako mahats doze-nan amaituta.

Herriko dendetara joan. Erosi gura doguna ez dagoala, ba bajatu Bilbora. Han danetarik dago. Zazpi kaleak opariak egiteko, Erriberako plaza tripea beteteko,... horreei emon beharra. Aspalditik, handikeriatan sartuta gagoz eta gauza txikiek ekarten deuskue bizi-tzeko handitasuna. Esaerak ez dau hau

esaten ala? Lurrinak eta gauza bi-txiak ontzi txikietan beti. Herri baten aberastasuna herrian bertan datza eta aberastasun hori mantentzea nahi badogu geuk be zerbait egin be-harko dogu. Ez nabil ekonomia hu-tsari buruz berba egiten. Kalean jen-teak giroa emoten dau, denda barik ez dago jenterik, ez dago bizitzarik. Ze triste dan kale batetik joatea eta persiana erdiak baino gehiago baja-tuta ikustea. Denda horreek ezin da-be ERE-rik egin. Asuntua txarto ba-doa... agur, txiringitua itxi eta etxera. Ez dago inolako laguntzarik, ez ezer be ez.

Harakinagaz edo galtzontzilo sal-tzaileagaz haserre egotea gertatu daiteke. Ba zer egingo deusaguz? On-doko herrira edo Bilbora joan. Apur bat garestiagoa izatea izan daiteke baina pena merezi dau.

Larrabetsun hasita eta Loium bu-katuta ziur Gabonetarako otzara be-te. Megaleku horreen kontra ez dau-kat ezer, baina badaukat asko denda txikien alde. Ziur zu zeu be horreen alde zagozana.

Goitik behera barik, zeharretara begitu!



TXELU REVUELTA
(Irakaslea)

Ez, ez nabiltzue *Berria*-ren hitz kuru-tzatuak osotzen hasi aurretikuko ar-gibideen ganean. Kontua da lehen-go egunean, Iberdrolak Bilbon daukan egoitzatik paraje nenbilela, jauntxo ba-riek altzau eta gotortutako eraikinari begira lotu nintxakola. Segidan pentsau neban horren altuera handiko torreen bertako nagusien artean goitik beherako begiradak ugari izango zirala, ezinbestean.

Askoren esanetan, egun gizartea de-mokratikoagoa da, eta danok eskubide

berberak izanik, gizon-emakumeen arte-ko hartu-emonak alkarriketan eta eretxi trukaketan munarritu behar dira, guztiok onuradun izan gaitezkan. Esan eta izan, halan beharko leuke...

Beraz, batzuetan sikan, lankide-la-gun hurkoaren ekarriari etenbako muzin egin orde, jarri daigun horizontalitatea praktikan, zeharretara begituta.

Akabuan, gehienok albokoaren beha-rrizana dogun ibiltariak gara eta aldatsgo-ra, bizkor edo oine-oine, alkarlanean bideak urratzen gabilz.

Bidean barrena, aukeran, neuk be nahiago dot goitik behera barik zehar-re-tara begitu.

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakoitzean
- Aurrekontuak doan
- Especialitatea: umeak

Gabon-kanten jaialdia



Badira 28 urte Txorierriko Gabon-kanten jaialdia lehenengo aldiz egin zela. Jaialdia Ipar-Alde Derioko abesbatzak antolatzen du urtero eta txorierriar askorentzat galdu ezineko hitzordu bihurtu da. "Bizkaian, lehenengoak izan ginen Gabon-kanten jaialdia egiten. Ohiko Gabonkanta batzuk erdi galduta zeuden edo ez ziren abesten, eta horiek berpiztea merezi zuela pentsatu genuen", azaldu digute abesbatzatik. "Jendetza batzen da emanaldietan eta aurten ere hala izatea espe-



ro dugu. Oso garai berezia da Gabonetakoa eta Gabon-kantak ere oso adierazgarriak dira".

Orotara sei emanaldi izango dira. Lehenengoa abenduaren 14an, 20:00etan, San Isidro Derioko elizan izango da eta han hurrengoak arituko dira: Ipar-Alde abesbatza, Mungiako Tantak Korala eta Usansoloko Orfeoia. Zamudion, abenduaren 15ean, 12:00etan egingo da San Martin elizan. Kontzertua Zamudioko Kamara Koralak, Arte Factum Bilboko abesbatzak eta Bihotz Alai Algotako abesbatzak eskainiko dute.

Gabon-kanten jaialdia abenduaren 21ean ailegatuko da Larrabetzura. Kontzertua 20:00etatik aurrera izango da Andra Mari elizan, abesbatza hauen eskutik: Gaztelumendi bertako abesbatza, Santa Lucia Laudioko Korala eta Zirzina Ahots Taldea. Loiu, Txuma Olagüe Sondikako Ahots Mistoko Korua, Agrupación Txuma Olagüe eta Bilboko Inmakuladako abeslariak arituko dira. Emanaldia abenduaren 22an izango da, 12:45ean, San Pedro elizan. Ekidazu Lezamako abesbatzak, Barakaldoko Eschola Chantorum-ek eta Kirikino Mañariko abesbatzak abenduaren 27an hartuko dute lekukoa. Beren emanaldia 20:00etan izango da Lezamako Andra Mari elizan.

Txorierriko Gabon-kanten jaialdiari amaiera emango dion azken kontzertua urtarrilaren 4an, 19:45ean, egingo da San Juan Bautista Sondikako elizan. Han Txorierriko sei abesbatzek eskainiko dute kontzertua.




LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19



Miguel Angel Lekue, garraioaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20



Pelukeria Estetika
94 455 81 44
Anguleri 2, behea Larrabetzu-Bizkaia



Jafetxea SIROCCO
Errebolo, e bonet
naua Larrabetzu
LAV 404 1888
ASTE BARRUTIAN
ogirik, txakurrik,
Puztekin, kinkak, kinkak,
Kinkak, kinkak,
Kinkak, kinkak, kinkak



Anje Duhalde, Sondikan

Altzora Sondikako euskara elkarteak bertso-saio bat eta kontzertu bat antolatu ditu abenduaren 5erako. Ekitaldiok Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunen barruan egingo dira. Fredi Paia eta Beñat Ugartetxea bertsolariak bat-batean arituko dira iluntzeko 8etatik aurrera Geltoki tabernan. Eta haien ostean, Anje Duhalde Iparraldeko musikariak eskainiko du kontzertua. Sarrera doakoa izango da.

Auto klasikoek topaketa, Larrabetzun

Larrabetzu Motor Racing elkarteak auto klasikoek kontzentrazioa antolatu du abenduaren 15erako. Aurtengo hau bosgarrena izango da. Iaz, 65 auto batu ziren Larrabetzun, eta antolatzaileek espero dute aurten gutxienez kopuru horretara heltzea. "Eguraldia oso garrantzitsua da: ona bada, gehiago etortzen dira eta, txarra bada, gutxiago. Normalean, 60 autotik 120ra bitartean biltzen dira Larrabetzun". Kontzentrazioa errefrentea da Bizkai mailan.

Urtero bezala, kontzentrazioari loturik beste ekintza batzuk antolatuko dira herrian, eta larrabetzuarrak laguntzeko

prest azaldu dira. Hala, ekintza nagusia 10:30etik aurrera izango da plazan, eta ere karpa bat ipiniko da inguru horretan, parte-hartzaileek eta bisitariek indarrak berritzeko. Besteak beste, tortillak, ogi-tartekoak, kafea eta txokolatea eskainiko dira han. Beste alde batetik, Garmitxa elkarteak kideek taloak egingo dituzte.

Larrabetzuko kontzentrazioan urtero batzen diren auto gehienak klasikoak dira; hau da, 25 urte baino gehiago dute. Egitasmoan parte-hartzeko, ez da izenik eman behar, nahikoa da autoarekin bertan agertzea. Autorik ederrenak saritu egingo dira.



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lahendakari Letzeola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelagotiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)



**Restaurante
JAUNA JATETXEA**

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak



MAYORISTAS INFORMATICS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO MOTOR



**ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA**

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

Talentu lehiaketa



"Izarren distira" gazteen talentu lehiaketa jarri da martxan aurten ere Txorie-rin. Casting bi antolatu dira: bata abenduaren 4an egingo da Zamudio; eta bestea, abenduaren 5ean, Derion. Gala abenduaren 14an egingo da Sondikako Kultura-etxean, eta irabazleak 1.000 euroko txartela jasoko du saritzat. Ekitaldia Jon Gomezek aurkeztuko du eta epaimahaia Ylenia Baglietto, Ugaitz Alegria eta Karmele Larrinaga aktoreek osatuko dute. Epaimahaikideek taldeen bilakaera eta eszenatokiaren eginiko lana hartuko dituzte kontuan, irabazlea hautatzeko. Gazteek prestatutako ikuskizunaz gainera, *Munduko mobilik onenak* bakarrikzeta ere eskainiko da.

Bestalde, lehiaketari loturik, fotokazetaritza tailerra antolatu da abenduaren 2rako eta 9rako. Bertan, 33 gaztek hartuko dute parte, eta horren bidez galaren berri emango dute.



ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Calz., 517
COOP. GARAIPERA ZAMUDIO-DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

PATXI
KOOP

PAIZO KOOPERATIBA ELKARTEA
Nerea Pedrosa Calz. 517 - 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 94 454 13 77 - info@patxi.koop - www.patxi.koop

OIZ FRUTA-DENDA

Oiz, 6
48170-ZAMUDIO

Rokodromora irteera

Lezama Gailur mendi taldeak irteera bat antolatu du Larrabetzun dagoen rokodromora. Gazteengan eskaladarako grina piztea du helburu irteera horrek. Horretarako, rokodromoan dauden presak eta hormako ibilbideak jolasteko erabiltzea proposatuko zaie. Irteera abenduaren 22an egingo dute eta bertan nahi duen guztiek hartu ahal izango dute parte. Hitzordua goizeko 9:30ean jarri dute Lezamako eskolan.

Elkartasuna Ateak Ireki webgunearekin

Hekimen Euskal Hedabideen Elkartek Ateak Ireki webgunearen itxiera salatu du, eta elkartasuna adierazi die atari hori martxan jarri eta bertan lanean aritu diren guztiei. Hekimenek informazio askatasuna azpimarratu du. "Komunikabide bat ixteak askatasun horren aurka jotzen du bete-betean, komunikabideek horixe egiten dutelako, informazioa askatasunez zabaldu, hedatu eta gizarteratu". Horren haritik esan du "Ateak Ireki ekimena galtzea herritarrek informatuak izateko duten askatasunaren kontra doala".

353 nobedade eta 130 ekitalditik gora, Durangoko Azokan



Durangoko Azokak abenduaren 5etik 8ra zabalduko ditu ateak. Aurtengoa 48. edizioa izango da eta bertan 130 ekitaldi inguru eskainiko dira aurkezpen, emanaldi, tailer, hitzaldi eta bestelako ekintzen artean. Azokara 353 nobedade eramango dira eta, besteak beste, liburuak, diskoak, aldizkariak eta bideoak ipiniko dira salgai. Guztira, 122 partaidek hartuko dute parte eta 238 stand egongo dira. Herrialde gonbidatua Eskozia izango da eta Argizaiola saria William A. Douglas antropologilari amerikarrari emango diote. Areto Nagusia, Ahotsenea, Kabi@, Irudie-

nea, Saguganbara, Plateruena eta Szena-tokia guneek programazio oparoa antolatu dute, eta Azoka TV gunea ere gaineratu behar da, azokan gertatzen dena pantaila erraldoi batean eta tokian tokiko telebisten bidez eskainiko duena.

Bestalde, esan beharra dago aurtur Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka izatetik Durangoko Azoka izatera pasatu dela. Gainera, Kulturaren plaza leloa gehitu zaio. Azkenik, abenduaren 5ean Ikasleen Eguna izango da eta egun horretarako antolatutako ekintzetan 22 ikastetxek hartuko dute parte.

KURREGOTTI JATETXEA
Laurietako etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantekurregotti.com

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LIBURUDENDA PAPERDENDA ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

elekma
LARRAZTEAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TROAK

Lehenengo martak • Irizpizirik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tacien etorbidea, 25-37 • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zuretzako lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

CDRren seigarren edizioa

a: Aner Mentxaka

Abenduaren 14an, CemenDerioRock (CDR) jaialdia egingo da seigarren aldiz, Santzoka Derioko elkartearen eskutik. Antolatzaileek azaldu dutenez, gazteei musikaz gozatzeko esparru bat eskaintzea du helburu egitasmo honek. "Gazteek eginiko jarduera bat da, gazteei begira antolatua. Eta ospatzekoa da gazteek antolatutako jaialdi honek sei urte irautea. Gainera, azken urteotan elkartean pertsona berberak ibili bagara ere, azken bolada honetan, zorionez, lagun berriek hartu dute lekukoa".

Jaialdia herriko frontoian egingo da gaueko 10:30etik goizaldeko 5ak arte, eta betiko moduan, doakoa izango da sarre-
ra. Frontoian txosna bat ipiniko da. Kontzertua talde hauek eskainiko dute: Basauriko Striknina (punk-rock-hardcorea); Bilbo eta Derioko Solte (hardcorea); Derioko Zizka Mizka (ska); eta Zornotzako Hijos de tu iglesia, La Polla taldeari omenez egiten diona. Disc-jockey bat ere izango da. Batuko den dirua herrian egiten diren beste egitasmo batzuetara bideratuko da. Iaz batutako dirua, adibidez, Korrikari eta rokodromoari eman diete aurtun.

Penadas por la ley taldea, iazko jaialdian



Lagatzuren ekintzak

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak "Olentzerori gutuna" lehiaketa antolatu du 15. aldiz. Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 6. mailara bitarteko ikasle zamudiotarrei dago zuzenduta eta lanak helbide honetara agindu behar dira: Aresti kalea 2, behea - Zamudio. Sariak abenduaren 27an, 20:00etan, banatuko dira kiroldegian. Ostean, Madiber magoaren ikuskizuna egongo da.

Bestalde, Zientzia ikuskizuna umeentzako antzerkia antolatu dute Euskaren Egunaren haritik. Antzezlan Di-da taldeak eskainiko du eta abenduaren 1ean, 12:00etan, izango da Zamudiotarren. Era berean, aipatu beharra dago Zamudioko Gazte Estazioan ere Euskararen Eguna ospatuko dutela, abenduaren 7an, 20:00etatik aurrera.

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 00 06

Peñasko arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Zamudion langabeen asanblada eratzeko lehen urratsak egiten hasi dira



“Herriko enpresek langabezian dauden zamudioztarrak kontratatzea nahi dute”

banan-banan aztertzea eta kasu bakoitzaren larritasuna kontuan harturik ematea lehentasuna”. Era berean, argi utzi dute asanblada ez dela nahastuko politika arloko gaietan. “Langabezian egoteak, gure egoera hobetu nahi izateak eta elkarrekin lan egiteko nahiak lotzen gaitu”.

Bilera alkatearekin

Asanblada eratzeko lehen urratsak egin dira eta lehenengo eta behin zerrenda bat osatu da, jakiteko nortzuek hartuko duten parte bertan. Alkatearekin biltzeko hitzordua ere eskatu dute. “Nahi dugu jakin dezan Zamudioko langabeek asanblada eratzeko lanean gabiltzala eta ezagut dezan zein den gure egoera. Gainera, uste dugu haren bitartez errazago izango zaigula enpresetara jotzea; izan ere, Udalak baditu baliabideak enpresei asanbladaren berri emateko eta gure egoera azaltzeko”. Biltzeko lokal bat ere eskatuko diote alkateari. Bitartean, eskola zaharreko arkupeetan bilduko dira barikuetan goizeko 11etan. Egitasmoaren bultzatzaileek Errekaldeko Langabeen Asanbladaren aholkua jaso dute eta elkarte ofizialki eratzeko prozesuari ekingo diote datozen egunetan.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuen arabera, Zamudiok baditu 3.232 biztanle, eta % 11,25ekoa da langabeziatasua. Hala ere, udalerrian badira 202 enpresa, eta oso altua da enplegu-sormenaren indizea.

Azaroan, herritar talde batek eskola zaharrean bilera bat egitera deitu zituen herriko langabeak, eta hitzordura 60 lagun inguru azaldu ziren. Antolatzaileek langabeen asanblada eratzeko proposatu zieten bertan bildutakoiei. “Zamudion badira enpresa asko, Teknologia-parkea aitzindaria da berrikuntza arloan, eta, Eustatek 2011n jakinarazitako datuen arabera, gure udalerria biztanleko BPG altuena duen EAEko herria da... baina, hala ere, hemengo langabe kopurua oso altua da”, azaldu digute. “Horregatik uste

dugu beharrezkoa dela guztion artean indarrak batzea eta langabeen asanblada bat sortzea. Herriko enpresek langabezian dauden zamudioztarrak kontratatzea da gure helburua, baina, horrezaz gainera, aurpegia eta izen-abizenak ipini nahi dizkiegu zenbakiei. Gure egoeraren berri eman nahi dugu, herri honetan jende asko ari delako oso txarto pasatzen”.

Eskola zaharrean batu ziren pertsonen profila askotarikoa da. “Hainbat sektoretako pertsonak gara, emakumezkoak, gizonezkoak, gazteak, lanik gabe luza-roan daudenak, erretiroa hartzeko daudenak..., baita langabezia-subsidioa kobratu ahal izateko egun bateko kontratua behar duen lagun bat ere. Bakoitzak badi bere egoera. Gure asmoa da kasuak

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Osuon-zentroa & Hortz-esteka
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HABARRAK ZEIN BELLUAK

Dr. Arizta kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Garmendia ardoak

Pinoia pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



Perretxiko sarigarria

Urrian, perretxikoen inguruan ekitaldi batzuk antolatu zituzten Berbalagun egitasmoaren arduradunek eta Lagatzu Zamudioko eus-kara elkarteak: hitzaldi bat, irteera bat eta sukaldaritza tailer bat, hain zuzen ere. Horrezaz gainera, argazki lehiaketa ere antolatu dute eta irabazlea Jesús Pedrero izan da. Irudi ederra benetan!

Argazkia: Jesús Pedrero



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



AM
FORMACION Y TRADUCCIONES
INGLES ESKOLA

- INGLES ESKOLA
- MAILA GUZTIAK
- AZTERKETA OFIZIAK EGITEKO PRESTAKUNTZA
- IRAILAREN 15AN HABI GARA
- EMAN IZENA (gure ikasleek %100ek geroztu dute 2013an)
- ONE-TO-ONE ESKOLA
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
- ITZULPEN-ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com
Garaioitza 120 D Erremerterri 16
48196 LEZAMA 48150 SONDIKA
T: 94 455 64 66 T: 94 453 64 68

“Arturo Kanpion ez dugu behar bezal

ASISKO URMENETA | komiki-egilea

Orduak eman ditzakezu Asiskori entzuten. Iruñean jaio eta hazi zen, eta gaur egun Hoztan bizi da, 100 biztanle ere ez dituen herri baxenafar batean. *Mihiluze* ETBko programan kolaboratu zuen, irratian ere sarri, *Argia* aldizkarian, Kukuxumuxun... Baina batez ere komiki-egilea dela esan daiteke. Hainbat lan argitaratu ditu eta horietako bat, *Gartxot*, pantaila nagusira eraman zuen duela urte bi. *Gartxot*, *konkista aitzineko konkista* animazioko filma da, Juanjo Elordirekin batera egin duena. Film hori azaltzera etorri da gurera.

t/a: Bestorrene

Zergatik landu Gartxoten historia?

Iruñean, Arturo Kanpion euskaltegia dago eta batzuek hara deitzen zuten Arturoz galdezka. Azaldu behar zitzairen Arturo hilda zegoela. “O! Sentitzen dut”, “Lasai, badira 60 urte baino gehiago hil zela”. Hori

kontatzen dut, zuek konturatzeko Arturo Kanpion nahiko pertsonaia ezezaguna dela, baita Nafarroan ere. Horregatik egin genituen beraren gaineko kontakizunak batzen dituzten hiru komiki. Hirugarrena *Gartxot*, Itzaltzuko bardoa da.

Nondik dator istorioa?

Kanpion idazleak berak aitortu zuen hiru iturri erabili zituela. Hala, leghenda edo ekandua Itzaltzuko biztanleengandik entzun zuen hasieran, baina historialaria ere bazenez, artxiboetan arakatu eta XII. mendean Orreagako fraideek garaiko bardo batekin izandako liskarren berri izan zuen. Azkenik, istorioari literatura ere gehitu zion, hau da, berak asmatutakoa. Kanpionek garai hartan kokatzen du euskal epikaren amaiera. *Gartxot* eta bere semea Mikelot hil zirenean amaitu ei zen transmisioa.

Eta filma?

Filma egiteko aukera komikia egin ostean etorri zitzaigun. Filmaren zati bat finantzatzeko, mikrofinantzazioa erabili

genuen. Hau da, pelikula filminetan zati-tu genuen eta filmina bakoitza 10 eurotan saldu genuen Nafarroan eta Zuberoan. Benito Lertxundirengana ere jo nuen; musika berea da.

Zelan hartu zuen Benitok?

Benito oso Kanpion-zalea da eta errespetu handia dio. *Gartxot* eta Mike-loten historia oso tragikoa eta gogorra denez, berak eta bere emazteak, Olatz Zugastik, ez zuten uste marrazki bizidunekin zerbait egokia egin zitekeenik. Filma baino lehen laburmetraia egin genuen, eta hori ikusi zutenean konbentzitu ziren eta animatu ziren proiektuan parte hartzera. Filmeko ahots batzuk haienak dira. Esan behar da eztabaida handia eduki genuela haiekin gidoiari buruz, eta amaiera aldatu behar izan genuela. Haien ustez, ezin zen istorioaren amaiera tragikoa leundu, izan zen bezala utzi behar zen filmean ere bai, eta horrela egin genuen.

Asko aldatu duzue Kanpionen kontakizuna?

Guk sormena bultzatzen dugu, (Asiskoren kamisetaren leloak hala adierazten du: “sorkuntza askatasunari, askatasuna sorkuntzari”), eta zenbait gauza sortu egin ditugu, Kanpionek berak egin zuen moduan. Esaterako, bere kontakizunean pertsonaia guztiak dira gizonezkoak eta gaur egungo ikuspegitik ezinezkoa da hori. Pertsonaia berriak asmatu ditugu, adibidez Xune neskak paper berezia du filmean. Eta berarengan ipini dugu esperantza apur bat. Berak jasotzen duela Mikeloten alboka eta jarraitzen duela jotzen. Xune izena geuk asmatuta-



a ezagutzen"

koa da eta poztu egin gara jakin izan dugunean hainbat neskari izen hori jarri dietela.

Bitxia da euskararen erabilera filmean. Zergatik?

XII. mendeko istorioa da, Orreaga inguruan kokatuta, eta hizkuntza giro horretara moldatu nahi genuen. Herritarren euskara eta fraideen latina agertzen dira, eta latinari dagokionez, ez dugu azpitu-lurik erabili ikusleak kontura daitezen bertakoek zer sentitzen zuten ezer ulertu barik. Baina istorioak aurrera egin ahalaz sartu egiten zara eta erraz ulertzen da.

Nola egin zen teknikoki filma?

Nahiko era bitxian. Presupuesto handiko animaziozko filmetan bezala, lehenago ahotsak grabatu genituen eta gero animazioa egin zen. Ahotsak zuberotarrenak direnez bertara eraman genuen grabatzeko ekipoa, eta grabazioak egin ahalaz interneten bidez bidaltzen ziren. Nik Baxenafarretik, nire etxetik, egin nituen pertsonaien irudiak eta horiek bidali. Andoainen dena jaso eta animazioko ekipok soinuetara egokitu zituen irudiak. Beste talde bat paisaiez arduratu zen.

Hemendik kanpo zabaldu da?

Hori kuriosoa da. Diru bila joan garenean oso istorio lokala dela esan digute, baina, osteraz, sariak jaso ditugu munduan zehar. Esate baterako, Australian eta Argentinan.



Gartxot eta Mikelot

*"Diru bila joan garenean
oso istorio lokala dela
esan digute, baina
munduan zehar, ordez,
sariak jaso ditugu"*

*"Hainbat neskari Xune
izena jarri diete, eta
hori geuk asmatu
genuen pelikularako"*

Kontatu gehiago Arturo Kanpioni buruz.

Historialaria, politikoa, idazlea... izan zen. Herriak gerra karlistak galdu berri zituen eta berak euskal sentimendua pizten lagundu zuen, batez ere Nafarroan. Euskararik ez zekien eta ikasi egin zuen. Sabino Aranaren garaikidea izan zen, baina azken horrek indarra arrazan jarri zuen bitartean, eta alderdi politiko berri bat sortu zuen bitartean, Arturo Kanpionek hizkuntzan, euskarari, jarri zuen indarra. Lan handia egin zuen, nahiz eta gero nahiko ahaztuta geratu den.

Baduzu proiektu berririk animazio arloan?

Bagabiltza horretan. Lehen finantzia-zioa lortzea zaila bazen, orain zailago. Badugu zerbait esku artean, baina oraindik lotu barik dagoenez ezin da ezer aurreratu.



Arturo Kanpion

Lzpilen
PARAFARMACIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 lona - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Consulting Sondaika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746
Muxione, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

“Korrika egiteak harrapau egiten zaitu”

XABIER ZUBIETA | kirolaria

Xabi 22 urteko gaztea da eta Diseinu eta Barrikuntzako Ingeniaritza ikasten dabil Markinan. Ikasketak alde batera itxita, derioztarrak kirola dau zaletasun nagusitzat. Ahal dauen bakotxean, korrika egitera joaten da. Urrian Bilboko gaueko maratoni-erdian hartu eban parte eta horren barri emon deusku.

t: Gaizka Eguzkitza

Noiz hasi zinan kirola egiten?

Beti egin dot kirola. Umetan futbolearen eta atletismoan aritzen nintzan, baina itxi behar izan nebazan ikasketak zirala-eta. Beraz, nire kontura hasi nintzan korrika egiten. Gaur egun, ahal dodan guztietan joaten naz korrika egitera.

Lasterketa askotan hartzen dozu parte?

Ez. Ez dot korrika egiten lasterketetan parte hartzeagaitik edo markak gainditzeagaitik, kirola egiteagaitik eta nire buruagaz ondo sentiduteagaitik baino. Batzuk dinor korrika egitea aspergarria dala, eta hasiera baten gauza bera pentsaten neban nik neuk be. Halanda be, korrika hasten zaranean, eta ohiturea hartzen dozunean, korrika egiteak harrapau egiten zaitu. Korrikalari guztiek esaten dabe gauza bera. Batzuetan lau egun emoten dot urten barik, eta sentiduten dot korrika egin behar dodala. Inork ez dau sinisten probau arte.

“Ez dot korrika egiten lasterketetan parte hartzeagaitik, kirola egiteagaitik baino”

Halanda be, Bilboko erdi-maratoian hartu zenduan parte. Zelan sortu zan ideia?

Lagunak parrandan egozala bururatu jakien maratoniaren parte hartzea. Ni ez nintzan egon momentu horretan, baina hurrengo egunean Ander Imaz lagunak proposatu eustan eta nik baietz esan neban. Lagunek atxakia dabe parrandan egozalako, baina nik, ostera, ez (kar, kar)... Azkenean sei-zazpi lagunek hartu genduan parte lasterketan.

Zelan esperientzia?

Alde batetik, mingotsa. Izan be, zortzi-garren kilometroan zuntz-haustura euki neban eta oso mingarria izan zan. Dana dala, lasterketea bukatu egin neban, baita lagunek be. Nik argi neukan: bukatu behar neban bai ala bai. Beraz, guztiak



urten ginan poz-pozik. Lesinoarena kenduta, oso esperientzia polita izan zan, jente piloa egon zalako eta giroa ederra izan zalako: musikea zuzenean, su artifizialak... Ganera, halako lasterketetan korrikalarien arteko laguntasuna sortzen da: adibidez, lesinoa zala-eta atzean gelditu nintzan eta bertan beste korrikalari bategaz ibili nintzan. Berak be min hartu eban eta alkarregaz joan ginan helmugara, alkarri berba egiten eta animoak emoten. Dibertigarria izan zan eta lasterketea labur egin jatan.



Korrika egiteaz gain, mendia be izugarri gustetan jako Xabiri. Inguruko mendietatik ibiltan da sarritan, eta Pirinioak be ezagutzen ditu. Baina zerbait gehiago gura eban eta horrengaitik erabagi eban kanpora joatea. Eta lehengo ekainean Marokora joan zan, Hegoi González lagunagaz batera. "Oso mendizaleak gara, eta zerbait desbardina eta ezezaguna egitearren, Atlasera abiau ginan. Horrek 4.000 metroko altuera dau eta Afrikako bigarren mendirik garaiena da. Gure aurrekontua ez da oso handia eta Maroko herrialde merkea da; beraz, oso aproposa guretzat".

Bikote derioztarrak bidaia azkarra eta merkea egin eban: barikuan joan eta martitzenera-

ko itzuli ziran. "Bilbotik Marrakechera hegazkinez joan ginan eta bertan egin genduan lo; hurrengo egunean herri txiki batera joan ginan, Marrakechetik 60 kilometrotara, menditik gertu, eta handik mendi-aterpera; domekan Atlaseko gailurrera igon genduan. Hurrengo egunean, turismoa egin genduan Marrakechetik eta martitzenera itzuli egin ginan etxera".

Kirola baino gehiago

Xabiren esanetan, oso "esperientzia polita" izan zan. "Gailurrean zagozala, mendi gehienak antzekoak dira, paisaje ikusgarriak eta harriak ikusten dozuzalako. Ez dau emoten Marokon zagozanik, baina bidaian ezagutzen eta ikusten dozuna zoragarria da eta merezi dau. Balio erantsia da, mendia igotzeaz gain, kultura eta herrialde ezbardin bat ezagutzen dozulako".

Gainera, mendia nahiko erraz gainditu eben. "Bidaiaaren aurreko egunean azterketa bat neban eta hori zela-eta ezin izan neban gehiegi entrenau. Baina egia esan, arazo handi barik igon neban Atlas mendira. Afrikara joan baino lehen 3.000 metroko mendi-tatik ibilia nintzan, eta arnasa hartzeko arazoak 4.000 metrotik gora hasten dira. Ez da oso larria, baina arazoak egon badagoz. Esate baterako, gailurrerako bidean gengozala, mendizaleak lurrean buruko minagaz ikusi genduzan, eta batzuk ez ziran tontorrera ailegau".

Esperientzia hain ona izan danez, bikoteak argi dau udan beste erronka bati egingo deusala aurre. "Beharbada, Israel eta Turkia ingurura joango gara. Oraindino ez dakigu, baina zerbait merkea izan beharko (kar, kar)".

Pozik zagoz emaitza edo merkea-gaz?

Udan emon genduan izena lasterketarako, eta garai hatan ordu eta erdiko marka lortzeko asmoa neukan, baina min hartu nebanez, usteak erdi ustel gelditu ziran. Azkenean ordu biko denporea egin neban. Ez dakit datorren urtean barriro egingo dodan.


Prestaketa berezirik egin zenduan lasterketeari begira: entrenamentuak, elikadura...?

Apur bat, baina ez gehiegi.

Zelango gomendioa emongo zeunskio horrelako lasterketa baten parte hartu gura dauenari?

Bildurrik ez izateko. Emoten dau erdi-maratoia oso gatxa dala, baina ez da hainbesterako. Ez da korrikalari fina izan behar lasterketea bukatzeko. Nigaz joan ziran lagun batzuk be ez dira ohiko korrikalariak. Izan be, maratoia egiteko hasi ziran korrika egiten eta lasterketea bukatu ahal izan eben, arazo handi barik. Maratoira joan baino lehen entrenau egin eben, jakina, baina ez oso gogor. Guk maratoi-erdia egin dogu, eta momentuz ez dogu maratoi osoa egiteko asmorik, baina denporearen poderioz, auskalo!

Abentura Afrikan



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Ekoizpenaren Programazioa
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

HEZIKETA AFEKTIBO-SEXUALA

Tailerak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei daude zuzenduta, eta helburu hauek dituzte: antisorkuntzaren sexu-ikuspegia ezagut dezatela, antikonzeptiboak modu erabilgarri eta etiko batean erabil ditzatela, eta bikote barruko elkarbizitarako eta komunikaziorako erremintak barnera ditzatela. Horretarako, familia-plangintzaz eta sexu-transmisiozko gaixotasunez arituko dira tailerretan. Sexu-transmisiozko gaixotasunei dagokienez, bereziki HIESaren sakonduko da, eta hainbat ekintza egingo dira HIESaren Kontrako Nazioarteko Egunaren haritik. Programa, orotara, 445 ikasleri dago zuzenduta.

GURASO ESKOLA

Txorierriko eskola publikoetako ikasleen gurasoei dago zuzenduta eta xedea horiei analisirako eta hausnarketarako elementuak ematea da. Hala, hitzaldi espezializatuak egiten dira, guraso bezala duten erantzukizunari modu eraginkor batean heltzen laguntzen dietenak.


OSASUN MENTALA

Mankomunitateak ematen dituen osasun mentalaren gaineko programek helburu hauek dituzte: parte-hartzaileek pentsamendu eta irudi negatiboak erabiltzen eta kontrolatzen ikastea, estresari aurre egiteko estrategiak ikastea, eta erlaxazioa eta irudikatzea erabiltzea. 2014. urtean auto-estimua lantzeko ikastaro bat egingo da, eta beste bat, azterketek dakarten estresari aurre egiten ikasteko.

OSASUNA ETA KONTSUMOA

Tailerretan sei urtetik 12 urtera bitarteko ikasleekin egiten da lan, kontsumo arduratsua eduki dezaten hainbat arlotan: birziklatzea, hondakinak bereiztea, bererabilpena, eta energia eta ura aurrezte. Era berean, osasunari lotutako gaiak lantzen dira, hala nola erretzen hastea prebenitzea (11-12 urtekoak), elikadura egoki bat izatearen garrantzia, eta jazarpen psikologikoaren prebentzioa, eskolan zein gizarte-sareetan (bullying eta cyberbullying).

Esku-hartze komunitarioko programak, 2014rako

**JAIK ETA AISIALDIA**

Kanpaina honek jaietan edaten den alkoholari lotutako arriskuak gutxitzea du helburu. Hala, Txorierriko herrietako jaietan karpak ipiniko dira eta bertan 18 urtetik gorako lagunek beren alkohol-maila ezagutu ahaliko dute, eta, horren arabera, gidatu ahal duten ala ez. Era berean, informazioa emango zaie alkohol gehiegi hartzeak dituen arriskuei buruz: alkohola eta gidatzea lotzea, sexu-harremanak alkoholaren eraginpean izatea, alkohola beste substantzia batzuekin nahastea, eta jarraera bortitzak, adibidez. Gainera, Mankomunitateak preserbatiboak eta alkoholimeatroak ipiniko ditu herritarren eskura txosna guztietan.

DROGA-MENDEKOTASUNEN PREBENTZIOA

Programak drogak hartzeak ekar ditzakeen arriskuei eta kalteei buruzko informazioa ematea du xede. Honako aktibitate hauek egingo dira: erretzeari uzteko ikastaroak, kanabisari buruzko hitzaldiak, drogen kontsumoaren prebentzioa pelikulen bidez eta ikasgelan material didaktikoak landuz, eta polikontsumoari buruzko hitzaldiak. Era berean, Tabakoa-ren Kontrako Egunean zenbait ekintza antolatuko dira. Programa 1.000 ikasle ingururi dago zuzenduta.

HIESAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 1ean da. Abenduaren 16ra arte "Expo-HIESa" erakusketa izango da Sondikako Liburutegian, Mankomunitatearen eskutik. Bertan, azken 30 urteotan HIESaren inguruan egin diren kanpainen bilakaera ikusi ahaliko da. Gainera, HIESaren gaineko informazioa eskuratu ahaliko da osasun zentroetan, udaletxeetan eta liburutegietan. Leku horietan utziko diren diptikoetan informazio hau azalduko da:

–GIBari buruzko 10 mito eta 10 egia.

–GIBa antzemateko test azkarra zer den eta non aurki dezakegun.

–Telefono eta helbide interesgarriak.

BIZIKIDETZA, BAKEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Programak helburu hauek ditu: besteekiko begirunean oinarritutako harremanak lantzea, adiskidetasuna eta solidaritatea ardaztat dituzten egoerak sortzea, talde-lana sustatzea, giza balioak bultzatzea eta gatazkak konpontzeko bitartekotza egitea. Programaren barruan hurrengo egitasmoak daude: Ikasle laguntzailea bizikidetzarako programa, demokrazian eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzarako programa, gizarte-sareetan dagoen indarkeriaren gaineko tailer didaktikoa, eta Sare-on programa, teknologia berrien arriskuak eta cyberbullying-a prebenitzea helburu duena.



EUSKARAREN EGUNA

TXORRIERRIN 2013

AURTEN DERION

azaroak
29
ostirala

DANTZA AGERRALDIA

19:00: Sollube kaletik hasita



abenduak
1
igandea

ZIRIKA ZIRKUS-EN DANZ JOLAS JAIA

Umeentzat

12:30: Derioko kiroldegian



azaroak
30
larunbata



BERBAGUNEA

Asier Vicario (Kartzarot taldearen abeslaria)
Miguel Madariaga (Euskadiko Fundazioko lehendakaria)
Karmele Aurrekoetxea (sendagilea)
Juan Manuel Torre (ekonomialaria)
Begoña Vicario (zinegilea eta EHUKo irakaslea)
12:00: Kultur Birikan



BERTSO-SAIOA

Arkaitz Estiballes, Uxue Alberdi,
Amaia Agirre, Etxahun Lekue
Aurkezleak:
Derioko eskolako 6. mailako umeak
Gai jartzailea:
Unai Elizasu
19:00: Kultur Birikan



TABERNA IBILTARIA

20:15: Kultur Birikatik hasita

abenduak
2
astelehena

ESKOLETAKO UMEENTZAT



BAT-BATEAN

10-11 URTE

9:30-12:00: Derioko kiroldegian

abenduak
4
asteazkena

ERIZ MAGOA

7-9 URTE

9:30-12:00:
Derioko kiroldegian



abenduak
3
asteartea

PEPITAREN LIBURU MAGIKOA

4-6 URTE

9:30-12:00:
Derioko kiroldegian



abenduak
5
osteguna



BUAH TXABAL INSTITUTUA

10:45-13:00: Gurea Aretoan



A portrait of Sara Gandara, a woman with long, wavy brown hair, wearing a teal button-down shirt with her arms crossed. She is smiling slightly and looking towards the camera.

“Monotoniak akabatu egiten nau”

SARA GANDARA | kazetaria

Ikusi dugu kirol saioetan eta eguraldia aurkezten, baina orain *Duelo en la cocina* eta *Euskal Herria* zuzenean programen aurpegia da. Sara Gandara lezamarrak lau urte daramatza telebistan; hala ere, oraindik ez da hedabide horrek ekartzen duen ospe-
ra erabat egokitu. Sara jatorra, irribarretsua eta hurbi-
la da eta oso gustura hitz egin dugu berarekin.

t: Gaizka Eguzkitza

Zenbat aldiz galdetzen dizute nola-ko eguraldia egingo duen hurrengo egunean?

Askotan, nahiz eta orain eguraldia ez aurkeztu (kar, kar).

Zelan daramazu telebistak ematen duen ospea?

Nahiko ondo. Oro har jendea jatorra da, gauza politak esaten dizkirate: kalean telebistan baino itxura hobea dudala, eta horrelakoak (kar, kar). Hala ere, batzuetan esperientzia txarrak izan ditut, batez ere gauez, jendea mozkortuta dabilenean. Hurbiltzen zaizkidanean, ni lotsatu egiten naiz. Izan ere, ni kazetaria naiz, eta aurkezte azken lau urteotan aritu naiz. Uste dut oraindik ez dudala ohitura hartu. Duela egun batzuk San Vicente de la Barquerara joan nintzen asteburua pasatzera. Pentsatu nuen lasai egongo nintzela eta bertan ez nauela inork ezagutuko, baina emakume bat etorri zitzaidan eta galdetu zidan ea zer egiten nuen bertan (kar, kar). Batzuetan ematen du jendeak uste duela pertsona arruntak ez garela, baina bagara, eta beste batzuek egiten dutena geuk ere egiten dugu.

Telebistan zaudenetik, bereziki zaintzen duzu irudia?

Bereziki ez, baina egia da lehen baino gehiago zaintzen dudala. Lehen ez nuen makillajerik erabiltzen, mototsa egiten nuen ilean eta kalera joaten nintzen...

Zer sentitzen duzu zeure burua pantailan ikusten duzunean?

"Hitz egitea eta idaztea izugarri gustatzen zait. Izan ere, batzuetan ipuin lehiaketetan hartu dut parte"

"Euskaraz lan egitea nahiago dut. Gazteleraz, ordea, freskotasuna botatzen dut faltan"

Lotsa. Guztiok gara oso zorrotzak geure buruarekin eta neu ere banaiz. Gauza onak ikusi beharrean, akatsei baino ez diet erreparatzen. Batzuetan neure burua aztertzen dut, baina ezin dut hori eguneroko-eguneroko egin; bestela, eromena da.

Zergatik egin zinen kazetari?

Egia esan, ez nuen batere argi. Nire asmoa zen Publizitatea eta Harreman Publikoak ikastea, baina oso selektibitate azterketa txarra egin nuen eta ez nuen nota nahikorik lortu bertan sartzeko. Eta Kazetaritza aukeratu nuen. Bigarren urtean aldatzeko asmoa nuen, baina azkenean

Kazetaritzan gelditu nintzen eta oso gustura, gainera. Kazetaritzak badu bere xarma, eta idatzizkoak, gehiago. Niri hitz egitea izugarri gustatzen zait, baita idaztea ere. Izan ere, ipuin lehiaketetan hartu dut parte behin baino gehiagotan.

Euskaraz eta gazteleraz egin duzu lan. Zein duzu nahiago?

Euskaraz. Gurasoak kanpokoak dira eta euskara ez da nire ama hizkuntza, baina ikasketak euskaraz egin ditut, bai eskola bai unibertsitatean. Eta kazetaritza arloan ere euskaraz egin dut gehienetan. *Duelo en la cocina* saioa gazteleraz grabatu dut eta nabaritu dut apur bat kostatu egin zaidala: freskotasuna, inprobizitate ahalmena... Gazteleraz lan egiten dudanean, batzuetan euskaraz etortzen zaizkit hitzak, eta pentsatu egin behar dut hitz egokia gazteleraz topatzeko.

Telebistan batez ere eguraldiaren iragarpenak egiteagatik zara ezaguna. Zelan sortu zitzaizun eguraldia egiteko aukera?

la kasualitatez gertatu zen. Lankide baten baja betetzen nenbilen, baina hark lanera laster itzultzeko asmoa zuen; beraz, ni kalera joango nintzen. Orduan, Urko Aristirekin egin nuen topo pasilloan eta berak eskaini zidan eguraldiarena. Aldaketa gogorra izan zen, oso denbora gutxi izan genuelako. ETBn meteorologo batzuek egiten dute lan gurekin eta izugarri lagundu didate. Pazientzia handia izan dute nirekin. Eguraldia egin baino lehen, gustatzen zitzaidan gaia: normalean iragarpena ikusten genuen etxean, behake-



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8.00etatik irekia
WIFI gunea



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Lezamar kirolzale eta egonezina

Telebistan agertzeak oso gutxi aldatu dio bizimodua Sarari. 1981ean jaio zen eta betidanik bizi izan da Lezaman, gurasoen etxean, udaletxetik gertu. Sara eroso sentitzen da herrian. "Lezamako eskolan eta Derioko institutuan ikasi nuen, jaio nintzen etxean bizi naiz eta herrian egiten dut bizitza. Hemen guztiok ezagutu eta agurtzen dugu elkar". Egia da, elkarriketa egiten geundela hainbat lagun agurtu zituen. Lezama gustatzen zaio, baina aukera duenean itsasora joaten da, hango "usaina" gustatzen zaiolako.

Aisialdiaz gozatzeko, txakurrarekin eta lagunekin ibiltzea eta batez ere kirolak gustatzen zaizkio Sarari. Gazteagoa zela areto-futbolean jokatzen zuen, baina duela urte batzuk min hartu zuen belaunean. "Lotailu gurutzatua apurtu zitzaidan eta futbolean egiteari utzi behar izan nion. Oraindik ere mina daukat noizean behin". Dena dela, beste jarduera batzuk egiten ditu: pilates, padel, patinajea... Eta boxeoa. "Gustatzen zitzaidan, baina trapezioak handitu egin zitzaizkidan eta azkenean utzi nuen".

Kazetaritzan eman zituen lehengo urratsak ere kirolari lotuta egin zituen. "Bekadun ibili nintzen ETBko kirol sailan. Geroago, kirol atala aurkeztu nuen *Gaur Egun* albistegian, baita *Zu kirolari* saioa ere. ACT Ligako estropadetako emankizunetan ere hartu dut parte". Kirola alde batera utzita, ETBn *Eguraldia* aurkeztu du, eta gaur egun *Duelo en la cocina* eta *Euskal Herria* zuzenean saioetan dugu ikusgai.

"Lezaman egiten dut bizitza. Hemen guztiok ezagutu eta agurtzen dugu elkar"

Ilusioa galdu

Dena dela, Sararen bidea ez da dirudien bezain zuzena izan. "2004an karrera bukatu nuen. Hurrengo bi urteotan ETBn ibili nintzen: bekadun, behin-behineko kontratuekin, udan, asteburu batzuetan... Nazkatu egin nintzen, beti deiaren zain nengoelako. Eta garai hartako zuzendariari, Pedro Mari Goikoetxea herrikideari, esan nion berriro ez deitzeko, zerbait finkoago nahi nuelako. Galdu nuen kazetaria

izateko ilusioa. Geroago, zerbitzari ibili nintzen, Irlandara joan nintzen, itzuli nintzen eta idazkaria izan nintzen Bilbao Basketen, marketin bulego batean...".

"Eta bat-batean *Deia* egunkaritik deitu zidaten, eta horri esker berreskuratu nuen kazetaritzarako grina. Gainera, lehenengo pausoak eman nituen telebistan, aurkezle, *Hamaika* telebistari esker. Horrek eskarmentua eman zidan eta oso baliagarria izan zen gero ETBn lan egiteko. Bidea pausoz pauso egin dut, eta oraindik babil egiten (kar, kar)".





"Hainbeste gauza egiteak aukera ematen dit noraino hel naitekeen jakiteko"

"Ya queda menos" saioaren haritik, kritika bortzidak eta mingarriak jaso nituen"

ta meteorologikorako estazio txikia genuen... Gaia korapilatsua da, eta horretaz aparte, beste gauza batzuk hartu behar dira kontuan: eguraldia egitean zutik agertzen zara telebistan, eta ondorioz, lehenengo aldiz zaindu behar izan ditut gorputz osoko mugimenduak. Eta, gainera, besteak beste iragarpena, mapa eta irribarrea kontrolatu behar dituzu. Egin nuen lehenengoan pozik atera nintzen. Eta bukatu bezain pronto esan zidaten: "Oso ondo, eta orain gazteleraz" (kar, kar...). Hasiera batean oso ikaratuta nengoan, baina oso esperientzia polita izan da.

Ya queda menos saioan ere hartu zenuen parte, baina bertan behera utzi zuten, audientzia gutxi zuelako. Zelan hartu zenuen porrota?

Telebistan azken hitza audientziarena da, eta zure programa oso jende gutxi ikusten badu, bertan behera utziko dute. Amorrua ematen du, baina telebista horrelakoa da. Nire ustez, esperientzia polita izan zen: lehenengo aldia zen umorezko saio bat egiten nuena eta hasiera batean ez nintzen oso eroso sentitzen. Nik saltserotzat hartzen dut neure burua, baina

telebistan aurretik saio serioagoak nituen eginda. Saioaren haritik, kritika bortzidak jaso nituen, eta apur bat mingarriak izan ziren, egiten zituztenek ezagutzen ez nindutelako. Nik kritika konstruktiboak onartzen ditut, eta ulertu ahal ditut nire lanari buruzko iritziak, nahiz eta nire gustukoak ez izan, baina kritika pertsonalak ezin ditut ulertu.

Gaur egun saio bitan ikusi ahal zaitugu. Bata *Duelo en la cocina* da...

Bai. ETBri eskerrak eman nahi dizkiot hainbat esparrutan ibiltzeko aukera eman didalako. Saio hori beste adibide bat da. Oso jende jatorra eta hurbila ezagutu dut, kalean grabatu dugu, batzuetan euripean ere bai (kar, kar)... Programa ezberdina da, sukaldean inor trebatzen ez duelako. Mamia da ea Euskal Herriko produktuak beste herrialde batzuetakoak baino hobekak diren jakitea.

Eta? Geureak dira onenak?

Onenak ez badira, onenetarioak izango dira... (kar, kar).

Eta bigarren saioa, *Euskal Herria zuzenean*...

Bai. Oso pozik nabil. *Eguraldian* oso pozik ibili nintzen, oso talde polita osatu

genuelako. Gainera, denboraren poderioz, eskarmentua hartu nuen eta gero eta hobeto moldatzen nintzen. Bat-batean, *Duelo en la cocina* saioa etorri zitzaidan eta horrek aldaketa handia ekarri dit, eta gero, *Euskal Herria zuzenean* saioak beste aldaketa bat. Zoragarria da, aldaketak gustatzen zaizkidalako. Gainera, hainbeste gauza egiteak aukera ematen dit noraino hel naitekeen jakiteko. Monotoniak akabatu egiten nau. *Euskal Herria zuzenean* saioa izugarri gustatzen zait: alde bate-tik, euskaraz egiten dudalako, eta bestetik, kazetaritzari erabat lotuta dagoelako. Eta hori *Eguraldia* edo *Duelo en la cocina* saioetan ez nuen.

Gaztea izan arren, hainbat gauza egin dituzu. Zerbait duzu faltan? Zer egitea gustatuko litzaizuke?

Irratian lan egitea gustatuko litzaizuke. Oso komunikabide xarmangarria iruditzen zait eta ez dut inoiz horretan lan egin. Telebistan oso eroso nago, baina hasiera batean beldur nion aurpegia eman behar izateari. Irratiak, ordea, animatua ekartzen dizu. Ondo legoke agian kirolari lotutako saioa euskaraz egitea (kar, kar).



“Ez zaizkit gustatzen moralkeria duten ipuinak”

TOTI MARTINEZ DE LEZEA | idazlea

Egun gutxi falta dira Durangoko Azokak ateak zabaltzeko. Toti Martinez de Lezea Larrabetzuko idazleak bere azken lanak aurkeztuko dizkigu bertan: umeentzako zortzi ipuin, Nurren azken abentura eta eleberri erromantiko bat. Ez dira gutxi! Lan horiei buruz hitz egin dugu egilea-ekin.

t: Itxaso Marina


Ume txikientzako literaturari ekin diozu orain...

Tira, nik denetarik idazten dut. Adiskide andereño batek aipatu zidan behin umeentzat eginiko liburuak asko direla, eta oso politak, baina ez zuela aurkitzen umeen arreta guztiz erakarriko zuen formatu bat. Ikasgeletan ume askotxo izaten dira eta guztiek nahi izaten dituzte liburuko irudiak ikusi. Zaila izaten da batzuetan, eta beti izaten da arreta galtzen duen umeren bat. Ipuin hauetan formatu berezi bat erabili dugu: liburua zutik jartzen da mahai gainean eta, narratzailea eta umea aurrez aurre daudela, bata testua irakurtzen du eta besteak irudiak ikusten ditu. Izan ere, ipuin hauek umei kontatzeko dira, ez umeek eurek irakurtzeko.

Zortzi ipuin idatzi dituzu guztira.

Liburuek pertsonaia desberdinak dituzte eta marrazkigile batek ilustratu du liburu bakoitza: Eider Eibarrek, *Dragoi urdin bat*; Marimar Agirrek, *Saltoka ibiltzen zen pilota bat*; Idoia Beratarbidek, *Hargina eta laminakua*; Cristina Fernandezek, *Kuku erloju bat*; Iñaki Holgado eta Jorge Madejonek, *Ipotx txiki-txiki bat*; Jose Angel Lopetegik, *Urtemuga-opari bat*; Concetta Probanzak, *Pencil izeneko arkatx bat*; eta Estibalitz Jalónek, *Kristalezko bola berezi-berezi bat*.

Mezua duten ipuinak dira?




Neuri ez zaizkit gustatzen moralkeria duten ipuinak, baina, espero izatekoa denez, beti transmititzen da zerbait. Umeen jakin-mina piztea da helburua, umeek pentsatzea eta irudikatzea.

Pozik emaitzarekin?

Poz-pozik. Gainera, kontuan hartu behar duzue mundu hau ez dela berria niretzat, beste garai batean hainbat urtetan ibili nintzelako umeentzako telebista-eta antzerki-saioak egiten.

Nurrek beste abentura bat bizi izan berri du.



Bildumako azken liburua *Nur eta kobazulo liluragarria* da. Harpea izeneko kobazuloan eta haren inguruetan kokatu dut istorioa. Liburuan mitologiari buruz hitz egiten da: lamiak, Tartalo, zaldiak... Kobazuloa ikustera joan nintzen eta liluratu egin ninduen inguru hark. Horregatik erabaki nuen bertan kokatuko nuela istorioa. Kobazuloa erakutsi zidaten




*“Urak dakarrena idatzi
ostean, eleberri
erromantiko bat
idazteko gogoa nuen”*

*“Kulturaren bidez
jarraitu ahal izango
dugu euskaldunak
garela esaten”*

Pasio- eta amodio-eleberri bat da, XIX. mendean kokatua. Bizkaiko gazte bat Ameriketara abiatu da, baina Tenerifen lehorreratu beharra du, itsasontzian zorabiatu egiten delako. Eta Itahisa eza-gutu du han, eta berarekin maitemindu. Etxera itzuli denean, ez da neska burutik kentzeko gauza... Istorioa oso ondo lotu dela uste dut. Gainera, amodioa ez ezik intriga ere badago eta garaia islatu dut. Bestalde, gauza batek eman zidan atenezioa: XIX. mendea arte Echeide esaten zioten Teide sumendiari, eta izen horrek deabruaren etxea esan nahi du guantxe-raz. Egia esateko, *Urak dakarrena* liburuak oso lan gogorra eskatu zidan eta, hura idatzi ostean, eleberri erromantiko bat idazteko gogoa nuen.

Liburu horiek guztiak Durangoko Azokan aurkeztuko dituzu.

Beste behin ere ilusio handiz joango naiz bertara. Izugarri gustatzen zait azoka: giroa, txoko guztietan euskara entzutea, irakurleekin egotea, aspaldian ikusi gabeko adiskideekin berriro topatzea... Hain zuzen ere, gure herriaren etorkizuna kulturaren dagoela uste dut. Globalizazioaren aurka borrokatzeko modua da kultura. Haren bidez jarraitu ahal izango dugu euskaldunak garela esaten. Horregatik idatzi behar dira liburuak, musika egin, antzerkia, pintura... Senarrak eta biok hasiera-hasieratik hartu dugu parte azokan, eta ezagutu dugu haren bilakera. Gaur egun, hainbeste idazle, musikari... egotea herria bizirik dagoen seinalea da eta gozamina da.



gidariak, haien alaba biak, haien etxea..., haiek guztiak agertzen dira istorioan. Aurrekoetan bezala, Juan Luis Landarenak dira marrazkiak. Beti erabiltzen dugu prozesu bera: nik argazkiak egiten ditut eta

berari bidaltzen dizkiot, marrazkiak egin ditzan.

Abentura gehiago izango dira?

Ba, ez dakit. *Nur* bilduma egiten hasi nintzenean, berari gertatzen zitzaizkion gauzak kontatu nahi nizkion nire ilobari. Baina Nurrek baditu 14 urte dagoeneko, errealitatean zein liburuan, eta ez dakit zer egin, beharbada adin horretan utzi beharko nuke...

Penarik?

Ez, etapa bat izan da. Asma daitezke beste pertsonaia bat eta beste istorio batzuk. Dena dela, bilduma hamar liburuk osatzen dute eta, nire ustez, zenbaki polita da.

Itahisa izen guantxea eta zure azken eleberria da.

Geure hizkuntza, geure eguna

Euskararen Egunaren ekitaldiak Derion izango dira aurten.
Aurrekoetan bezala, ahalegin berezia egin da
parte-hartzaileak eta herritar guztien gustukoak izan daitezen

Abenduaren 3a euskaldunok ondo ezagutzen dugun data da, egun horretan Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen delako. Ospakizunaren haritik ekintza sorta zabala antolatu da Txorierrin, Derion hain zuzen ere, aurten herri horri dagokiolako anfitrioi izatea. Ekitaldi-sailari azaroaren 29an, barikuan, emango zaio hasiera. Lainomendi dantza taldearen eskutik, dantza agerraldia egingo da arratsaldeko 7etan. Hitzordua Sollube kalean ipini dute eta gonbidapena egin diete Txorierriko gainontzeko dantza taldeei ekitaldian parte har dezaten. Eguraldi txarra egonez gero, leku estali batera eramango dute ekintza, Kultur Birikara, hain zuzen ere.

Zapatua egun indartsuena izango da. Goizeko 12etan Berbagunea egongo da Kultur Birikan. Han gai ezberdinak aztertzeko aukera egongo da eta solasaldi bakoitza aditu batek zuzenduko du. Bos-pasei mahai atonduko dira eta parte-hartzaileak hiru mahaitan aritu ahalko dira. Solasaldi bakoitzak 20 minutu inguru iraungo du. Asier Vicario Kartzarot taldearen abeslariak, Miguel Madariaga Euskadiko Fundazioko presidentek, Karmele



Aurrekoetxea sendagileak, Juan Manuel Torre ekonomialariak eta Begoña Vicario zinemagileak edukiko dute solasaldiak zuzentzeko ardura. "Berbagunea iaz egin zen lehenengo aldiz Sondikan eta oso arrakastatsua izan zen: adin ezberdinetako lagunek ez ezik herri guztietako lagunek ere hartu zuten parte bertan. Horregatik erabaki dugu aurten ere antolatzea",

azaldu digu Laura Martinez Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Teknikariak. "Gainera, ekintza honi esker bermatzen dugu gure helburuak betetzen direla: alde batetik, euskaraz hitz egitea; eta bestetik, parte-hartzea".

Arratsaldeko 7etan, Kultur Birikan, bertso-saioa eskainiko dute Arkaitz Estiballesek, Uxue Alberdik, Amaia Agirrek eta Etxahun Lekuek. Gai-jartzaile Unai Elizasu ibiliko da. Ekitaldia Derioko eskolako 6. mailako ikasleek aurkeztuko dute. "Eskolan bertsolaritza ikasten dabilta eta proposamen hau egin diegu: aurkezpene bertsotan egitea. Izan ere, pentsatu dugu modu polita izan daitekeela adin horretako umeak ere ekitaldira erakartzeko". Bertso-saioa, orokorrean, herritarren aldetik oso erantzun ona izaten duen ekitaldia da. Bestetik, aipatu beharra dago aurten antolatzaileek ahalegin berezia egin dutela, bertsolarien artean zein Berbagunean emakumeak egon daitezen, uste baitute haien ekarpenak eta ikuspuntuak ere isla eduki behar dutela ekitaldietan.

Taberna Ibiltariak lekukoa hartuko die bertsolariei. Talde hau ezinbesteko bihurtu da Txorierrin antolatzen diren egi-

*Ekitaldiak azaroaren
29tik abenduaren
5era arte izango dira*

*Ahalegin berezia egin
da emakumeen parte-
hartzea indartzeko
eta gazteengana
ailegatzeko*





tasmo guztietan eta, zalantza barik, beren ekitaldiak lagun asko batuko du. Kultur Birikatik 20:15etik aterako dira eta kantuz kantu ibiliko dira herriko kaleetatik eta tabernetatik zehar. Herritarrek haiekin batera kantatu ahal izateko, abestien letrak dituzten paperak banatuko dira. Gainera Derioko zenbait tabernatan 19:00etatik aurrera pintxo potea antolatuko da. Ekintzak bakoitzaren indarrek utzi arte iraungo du.

Domeka umeen eguna izango da. Zirika Zirkus taldeak haiei zuzendutako *Danz jolas jaia* ikuskizuna aurkeztuko du 12:30ean kiroldegian. Ekitaldia Tximintx euskara elkartearen proposamena da eta bertan, bere izenak adierazten duen moduan, dantza eta jolasak lantzen dira.

Gazteengana ailegatzea

Azaroaren 2an, 3an, 4an eta 5ean mugimendu handia egongo da Derion, eskoletako umeen eta institutuko gazteen txanda izango delako. Orotara 1.479 lagunek hartuko dute parte bereziki haiei zuzenduta antolatu diren ekintzetan. Abenduaren 2an, astelehenean, *Bat batean* saioa egingo da 10 urtetik 11 urtera bitarteko umeentzat. Martitzenean, *Pepi-taren liburu magikoa* lau urtetik sei urtera bitarteko umeentzako antzezlanaren egongo da, eta asteazkenean magia-saioa eskainiko du Eriz magoak. Azken hau zazpi urtetik bederatzi urtera bitarteko umeentzat izango da. Ikuskizun guztiak kiroldegian egingo dira eta saio bi egongo dira egun bakoitzean.

Gazteengana zelan ailegatu eta hizkuntzaren erabilerekin zelan sentikorr



bihurtu asmatzea ez da behar erraza. *Buah txabal* antzezlanaren helburu horiek betetzeko sortu zen antzezlanaren da eta Derion, abenduaren 5ean eskainiko da, Gurea Aretoan. DBHko ikasleei dago zuzenduta eta, besteak beste, gazteek euskararen inguruan dituzten ohiturak eta jarrerak lantzen dira bertan.

Ekintzak antolatzeko orduan, hauek hartu dira kontuan: adin guztietako laguntzat erakargarriak izan daitezela eta parte-hartzea bultzatzea. Antolatzaileek helburuak betetzea espero dute, eta txorieritar guztiak anima daitezela Euskararen Egunarekin bat egitera. Gainera, herritarren eta herriko taldeen erantzuna azpimarratu dute, beti egiten duten moduan, oso jarrera ona erakutsi dutelako, eta euren iradokizunak kontuan hartu dituztelako, Euskararen Eguna Txorierriin erabat arrakastatsua izan dadin.

Arantza mendi edo Monte Gorbea

t/a: Sabin Arana

Aita, Estanislao Arana, *Arantza Mendi* itsasontziko kontramaisua izan zan eta itsasontzi horren historia eta 1942. urtean jaso eban erasoak kontau eustazan. Baita eraso horren ondorioak be. Arantza mendi itsasontzia Euskalduna ontzian egin zan bigarren motor-ontzia izan zan, eta lehenengoa, halako tamainua ebana. Armadoreei, Sota y Aznar konpainiari, 1923. urtean emon eutseen.

Francoren aldekoek 1936ko gudan nazionalizau eban itsasontzia, eta LECCE izena ipini eutsien. Itsasontzia Italiatik Espainiara armak garraiatzeko erabili eban, italiar banderapean. Armadoreek 1938. urtean berreskuratu eban itsasontzia. Halanda be, haren izena ez ezik konpainiaren izena be aldatu behar izan eban, baita beste ontzi guztien izena be, Francoren gobernuak halan egitera behartu zitualako. *Mendi* hitza gazteleraz ipini eban, eta *Arantza* ordeaz, *Gorbea*. Beraz, *Arantza Mendi* itsasontzia *Monte Gorbea* itsasontzia bihurtu zan. Konpainiak Naviera Aznar izena hartu eban. Beste kidea, Sota, Ingalaterran kokatu zan eta Bigarren Mundu Gerran Britainia Handiari eskini eutsazan bere eskuetan egozan ontzi guztiak. Lehenengo Mundu Gerran be laguntasuna emon eutsen aliauei eta horregaitik sir Ramon Sotakoa izentau eban.

Monte Gorbea itsasontzia bidaia egi-ten hasi zan Ameriketara. 1942ko iraila-



ren 9an, Buenos Airesko portutik urten eban, gariz eta indabaz kargauta egoala. Karga hori oso garrantzitsua zan, jakina danez, guda ostean, Estatuan gosete handia egoalako. Irailaren 19an, Alemaniako U512 urpekoak *Monte Gorbea* itsasontzia begiztau eta geldiarazo egin eban. Urpekoko komandanteak aliauuen ontzi kamuflaua zala uste eban eta, lau ordu

Arantza Mendi ontzia; *Monte Gorbea*, diktadura garaian. Euskalduna ontzian egin zan bigarren motor-ontzia, eta lehenengoa, halako tamainua ebana.



Kastearena kapitaina.

geroago, torpedoz erasoteko agindua emon eban. Itsasontzian egoan jenteari ezelako laguntasunik emon barik alde egin eban handik.

Monte Gorbea minutu bat iraun eban ur gainean. Brankaz hondoratu zan eta eroiazan hiru salbamentu-txalupetatik bi galdu ziran. Hirugarrenari buelta emon behar izan jakon, uretan buruz behera lotu zalako. Andre Ramirez San Martin argentinar pasaiaria eta nire aita zaurituta gertatu ziran behar horretan. Itsasontzian, 47 tripulatzaille eta 23 pasaiari egozan, eta hareetatik 23 tripulatzaille eta lau pasaiari



itsasontzia

Itsasontzia Alemaniako urpeko batek eraso eban torpedoz

atera ziran bizirik. Gainerakoei jagokenez, batzuk ito ziren eta beste batzuk marraixuek jan zituen. Bizirik urten ziranen artean, ohol bati lotuta topau eben 12 urteko neska bat. Eta hil ziranen artean aitagarria da, nire ustez, Luis Fernando Diaz de Mendoza aktorea, Fernando Diaz de Mendoza aktore eta aristokrataren eta Maria Guerrero aktorearen semea zana. Itsasontziko kapitaia Felix Kastearena iruindarra zan.

Kokondoa eta txarria

Salbamentu-txalupan ordu batzuk egin zituen ea uretan beste personaren bat ikusten eben. Baina inor gehiagorik aurkitzen ez ebenez, Karibeko Martinika islara abiau ziran, 60 itsas miliara egoana. Egun bat egin eben islara ailegetako, eta han frantziar militarrek arduratu ziran eurretaz. Ofizialki adierazo zan kontsultordeak emon eutsela ostatua, baina aitak kontau eustanaren arabera, islan egondako hamabost egunak goseak jota ibili ziran. Kokondo batera igoten saiatu ziran gosea kentzeko, baita txarri basati bat harrapatzen be, baina ez eben arrakastarik izan ez behar batean ez bestean. Hori bai, zaurituek zainketa medikoak jaso zituen. Lehenengo eta behin, salbamentu-txalupan, han tripulazinoen medikua egoalako; eta gero, Martinikako uriburuko ospitalean.

Ontzi-konpainiak Ingalaterrako agenteen bitartez jakin eban gertatukoaren barri, eta Martinikatik hurbil ebilen *Monte Altube* bialdu eban bizirik egozanen bila. Cadizera urriaren 21ean ailegau ziran.

U512 urpekoa britainiar gerra-hegazkin batek bonbardeau eban eta marinel bat baino ez zan bizirik atera. *Monte Gorbeako* kapitaia beste itsasontzi baten izandako istripu baten ondorioz hil zan: zamalteigira erori zan. Eta nire aita konpainian erretiratu zan, bere ofizioan.

sarrerren salmenta
www.bbik.es
bbk

BFA DFB
BFA DFB
BFA DFB

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA



HANSEL ETA GRETEL TXOKOLATEZKO ETXEAN
GLU GLU PRODUCCIONES
Musikala, euskaraz. 3tik 9 urtera artekoa
Abenduak 22, 17:00
Prezioa: 6 €

EPIC: EL MUNDO SECRETO
102' AG (2D)
Abenduak 1, 17:00

AMAREN ESQUAK
91' EG-7 EUSKARAZ (2D)
Abenduak 1, 19:30

FROZEN: EL REINO DEL HIELO
102' AG
Abenduak 7, 18:00 (2D)
Abenduak 8, 17:00 (3D)

SÉPTIMO
84' EG-12 (2D)
Abenduak 7, 20:30
Abenduak 8, 19:30

GRU 2. MI VILLANO FAVORITO
98' AG (3D)
Abenduak 15, 17:00

¿QUIEN MATÓ A BAMBI?
89' EG-12 (2D)
Abenduak 15, 19:30

EL CONSEJERO
118' EG-16 (2D)
Abenduak 21, 20:30
Abenduak 22, 19:30

FREE BIRDS (VAYA PAVOS)
91' AG
Abenduak 28, 18:00 (2D)
Abenduak 29, 17:00 (3D)

EL HOBBIT, LA DESOLACIÓN DE SMAUG
(3D)
Abenduak 28, 20:30
Abenduak 29, 19:30

ZINEA






2D: 4 € 3D: 6 €

*ahantzi produktorearen behar-etan arabera programazioak aldatuak jaian, etxeko

t/a: Txerra Rodriguez

Udan Bernardo Penabade galiziarra-
rekin egoteko aukera izan nuen. Bernar-
do Lugoko kostaldean bizi da, Marinha
izeneko eskualdean. Bera institutuko ira-
kaslea da eta interbentzio soziolinguisti-
ko oso interesgarria ari da garatzen: Bu-
rela eredua (edo Linguaviva).

Euren asmoa da galizieraren arrasto-
ak egunerokoan aurkitzea. Horretarako,
ikertu dituzte auzokideen komunitateko
aktak, notarietako agiriak, komertzioeta-
ko paisaia eta fakturak, ezkontza-agi-
riak... Baina, ikerketa hilerrietan hasi zu-
ten eta hor dago garatuen.

Ikerketaren helburu nagusia galizie-
raren alde egon litekeen sare soziala sor-
tzea da. Horretarako, dokumentu horiek
aztertu bai, baina batez ere dokumentu
horiek egin dituztenak bilatzen dituzte.

Kanposantuek zelan egiten digute berba?

Horren harira, Bernardok eskatu zi-
dan Euskal Herriko hilerri batzuk beha-
tzeko, bere ikerketa balidatu ahal izateko
asmoz. Eta horretan aritu gara Eider Pal-
mou eta biok Txorierriko bost hilerri na-
gusietan: Sondika, Derio (Bilbokoa ez,
Deriokoa, eliza ondoan dagoena), Zamu-
dio, Lezama eta Larrabetzun.

Emaitzak argigarriak izan dira. Gali-
zian baino gehiagotan ikusten dira gu-
rean euskarazko hiliarriak. Behintzat, az-
tertu ditugun bost herrietan. Eta kontuan
hartu behar da Galizian oso herri galizie-
radunetan ere behatu dela.

Baina gatozen Txorierriara. Larrabe-
tzun daude euskarazko hiliarri gehien
Txorierriin. Hiliarri guztien % 67 dago eus-
karaz Larrabetzuko kanposantuan (171
hiliarri). Gainera, 2000. urtetik aurrerako
gehienak euskaraz daude.

Lezaman, baina, hiliarrien % 34 dago
euskaraz (94 hiliarri). Derion % 16 (64 hila-
rri), Zamudion % 11 (48 hiliarri) eta Son-
dikan % 7 (34 hiliarri).

Íñaki Peñak ere behaketa egin du Eus-
kal Herriko hilerri batean. Lesakako kan-
posantu berrian. Han hiliarrien % 44 dau-
de euskaraz (28 hiliarri).



Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Derioa

Behoko Kalea Bajo
DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kirmasajen

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanem etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

MAS X MENOS

Janari-denda
Prezio paregabeak



Bestorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

JAREN
Imitaziozko bitxiak & Oragarriak

Inork baino lehen
egin erosketak



Sollube, 8
48160 - Derio
94 415 48 88

ARAMENDI DASTALEKUA

TARTAK
PASTELAK
ENKARGUZ



Oz, 6
48170 ZAMUDIO
94 452 20 49

ZB
ESTETIKA-ZENTROA

30 € AUTOMAKILLAJE-
IKASTAROA
+ pintzel-jokoa opari
(19,50 € balio du)

17 € MANIKURA
ERDIIRAUNKORRA

GABONETAKO SASKIAK
(edertasun-produktuek osatuak)

Bestorrene 1, Derio
650947057
www.centroesteticoZB.com

Liliak
Loradenda

Apaiagarri bereziak Gabonetarako
Lore-konposizioak

Erdiko kalea, 2
48160-DERIO
94 454 12 23
Facebook: liliak loradenda



IRATXO
gozotegia

larta pertsonalizatuak
trufak
txikiak
pastelak
pastak



Mikel Zarate, 2 - 3. kofa • Sondika, 48150 • 94 645 89 19

Alaia
fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Talleri, 5
48170 Zamudio
94 685 05 85



Aurtengo Gabonetan
preziorik onenak

Eskaintza bereziak

5 € **10 €** **15 €**

Txorierri etorbidea, 9 atzealdea
48160 Derio (BIZKAIA)
Tel.: 94 645 55 33
lpulna@hotmail.com

ipulna
jostailu-denda



“Herritarren esku dago tokiko merkataritzaren etorkizuna”

OIHANA SAGASTI | Sondika Berton elkartearen presidenteordea

Dagoeneko egin dituzte elkarte gisa eratzeke egin beharreko pauso guztiak. Eta paper ofizialen zain daude orain. Nolanahi ere, Sondikan Berton zerbitzu-, merkataritza. eta ostalaritza-elkartea hasita da jada herrian hainbat jarduera sustatzen. Oihana Sagasti elkarteko presidenteordea da eta elkartearen nondik-norakoen berri eman digu.

t: Itxaso Marina

Ekimen berezia egingo duzue Gabornei begira.

Txartel bat aterako dugu, oso korporatiboa, kontsumoa sustatzeko eta herri-tarrek ezagutzeko zer den Sondikan Berton elkarte eta zeintzuk diren haren koloreak eta helburuak. Txartelean elkartearen izena ageri da, baina berton hitza osatu beharko da. Nola? Elkarrearen barruan dauden establezimenduetan ziguiluak banatuko dira eta, erosleak erosketa bat egiten duen bakoitzean, haietako bat jasoko du. Ziguilu bakoitzean, berton hitza osatzeko behar den hizki bat egongo da. Hitza osatzen denean, txartela kutxa batean utzi beharko da eta erosleak parte hartuko du zozketa batean.

Oso elkarte berria izan arren, hasieratik ekin diozue herriko merkataritza dinamizatzeari.

San Joan jaietan, “Txartelak airean” kanpaina egin genuen. Denda bakoitzak bost eskaintza egin zituen, bakoitzak nahi zituenak, eta eskaintza bakoitza txartel batean idatzi zuen. Eskaintzak puxiketan sartu ziren eta puxikak Udaltxeko balkoitik askatu ziren, herritarrek hartzeko. Santa Kurtze jaietan ere saskiak egin eta hainbat produktu sartu genituen haietan; marmitako txapelketan lehenengo sei postuetan lotu zirenei bana eman genien. Azkenik, *outlet* bat egin genuen Enologia Egunean, orain dela aste gutxi. Dendak kalera atera genituen eta bakoitzak nahi izan zuen eskaintza egin zuen, beherapenak, opariak... Egia esateko, oso pozik gaude ekintzek izandako erantzunarekin.



Zelan sortu zen elkarte eratzeke ideia?

Iazko Gabonak baino lehen, Udalak merkatarioi deitu eta adierazi zigun kanpaina bat jarri nahi zuela martxan, herriko merkataritza bultzatzeko. Kanpaina horren goiburua “Sondikan berton” izan zen eta, besteak beste, denden sarreretan ipintzeko lanpasak eta oihalezko poltsak atera ziren. Kanpainaren ostean, berriro deitu zigun emaitzak aztertzeke, eta el-

karte bat eratzea proposatu zigun. Leioako dendarien elkarteko presidentea etorri zitzaigun beren esperientzia azaltzera eta zalantzak argitzera. Baita Mungiako dinamizaziorako bulegoaren arduraduna ere. Elkartea osatzeko prozesua azken horren laguntzarekin egin genuen.

Udalak martxan jarritako kanpainaren izena hartu duzue.

Baina bata eta bestea bereizi behar dira. Elkartea eratzeke lehenengo batzarretan, gauza asko aztertu behar izan genituen eta “Sondikan berton” kanpaina ipini zen mahai gainean. Kanpaina horretan lan handia egin zen: izen bat, irudi bat... eta pentsatu genuen baliatu ahal izango ginela lan horretaz. Baimena eskatu genuen eta eman ziguten. “Sondikan berton” irudiaz jabetu gara eta nahi dugun bezala erabil dezakegu.





*"Sondika negozio
gehien zabaltzen
eta ixten diren
herrietariko bat da"*

*"Kalitatea eskaintzen
dugu, zerbitzu ona,
tratu hurbila... Galdu
diren balioak dira"*

Zenbat saltoki zaudete elkartearen barruan?

Hogei saltoki gara, esparru askotari-koak. Gure helburua jendeak herrian kontsumitzea da, berton ez baitago tokiko kontsumoari loturiko kulturarik. Sondikan bada denetariko eskaintza, ez da beharrezkoa merkataritza-gune handietara joatea. Gure etorkizuna herritarren esku dago. Guk kanpainak sustatu eta dinamika bat martxan jarri arren, herritarren

erantzuna ona ez bada, dende itxi baino beste erremediorik ez dute izango. Gainera, aipatu beharra dago Sondika negozio gehien zabaltzen eta ixten diren herrietariko bat dela. Denbora luzea pasatzen delako negozioa zabaltzen dene- tik hura finkatu arte.

Merkataritza-guneetan dena merkeagoa den susmoa badago.

Ez da egia. Aspaldian, merkataritza-guneak sortu zirenean bai, beharbada;

baina ez gaur egun. Hara joateko behar den gasolina hartu behar da kontuan, zenbat denbora ematen den... eta prezioa ere ez da merkeagoa. Bestalde, herriko dendari-ek beti edukiko dituzte detail-ek beren bezeroekin, oparixoren bat...

Eta abantailak baino ez dituzue eskaintzen.

Kalitatea eskaintzen dugu. Baita zerbitzu ona ere. Tratu hurbila ematen diogu bezeroari, eta haren beharrianetara ego- kitzen gara. Adibidez, gutako askok etxe- ra eramaten ditugu erosketak. Halakoak lehen estimatzen ziren balioak dira, gaur egun galdu direnak. Herriak lo-hiri bihur- tu direlako kexatzen gara. Baina, zelan ez da hala izango? Nik eman ahal izateko, zuk erantzun egin behar didazu; osteran- tzean, akabo. Eta jendeak hori ulertu be- har du.

GABONETAKO LOTERIA

aikor!
txorierriko aldizkaria

96964

Tabernea baino gehiago

Urrian hasierea emon jakon herriko tabernen aurkako epaiketeari. Auziaren haritik 110 herriko taberna epaituko ditue; Deriokoa, Zamudiokoa, Lezamakoa eta Larrabetzukoa, haren artean. Jabi Agirre lezamarragaz eta Arkaitz Unzueta zamudioztarragaz izan gara solasean elkarre honeen jardueraren gainean, eta euren eritxia be emon deuskue epaiketaren inguruan.

Julemendi Zamudioko herriko tabernea Euskal Herrian zabaldu ziran lehenengo herriko tabernetariko bat izan zan. Julemendik 1983an ireki zituan ateak eta haren ostean Txapela Derioko herriko tabernak egin eban, 1985ean. Aretxabala Larrabetzuko herriko tabernea eta Oxangoiti Lezamako herriko tabernea 1988an eta 1995ean sortu ziran hurrenez hurren.

Jabik eta Arkaitzek gogora ekarri deuskuen moduan, herriko tabernak herritarrek eurek martxan jarritako alkarteak dira. Sortzaileek kreditu bat eskatu eta ahalegin ekonomiko bat egin behar izan eben egitasmoak aurrera atera ahal izateko. "Ahalegina be egin genduan herriko tabernea txoko bat izan ez zedin eta herritar guztiei zabalik egon zedin", aitatu dau Jabik. Halan, urteetan zehar herritarren topagunea izan dira eta, taberna bati lotuta dagoan jardueraz gainera, kultura arloko ekitaldiak antolatu dira bertan: euskerearen aldekoak, berbaldiak, erakusketak, urteerak, bertso-saioak, afa-riak...

Arkaitzek oso gaztea zala euki eban lehenengo aldiz harremana herriko tabernagaz. "Herriaren aldeko sentimentua bizten jatzu eta haren alde gura dozu behar egin. Herriko tabernea beste tabernak ez bezalakoa zala ikusi genduan, han gure nortasuna lantzeko hainbat esparrutako ekitaldiak egiten ziralako", azaldu deusku. "Egia da herriko tabernea ikuspuntu ezkertiar eta abertzale batetik uler-



Joseba Petralanda eta Jabi Agirre, Julemendi Zamudioko herriko tabernaren aurrean

tu behar dala, baina guk be ulertzen dogu gizarte anitz baten bizi garela, eta ez dogu inoz arazorik euki beste alkarte batzukaz batera ekitaldiak antolatzeko. Eta behin baino gehiagotan halan egin dogu".

Herriko tabernen aurkako sumarioa orain dala 11 urte ireki eban Garzon epaileak. Jabik adierazo deuskun legeaz, denporaldi honetan ziurgabetasun-egoera baten bizi izan dira. "Ez genekielako etorkizunak zer ekarriko euskun. Are gehiago,

kultur ekitaldiak antolatzeari ixtea pentsau genduan, beste ondorioren bat ekarriko ote euskun beldurrez". Nolanahi be, herriko taberne euren jardueragaz jarraitu dabe urte honeetan.

Nortasuna

Denporaldi honetan be beste gertaera bat izan zan: Zamudioko herriko tabernearen itxierea orain dala zazpi urte, Ibon Meñikaren atxilotetearen ondorioz. "Herriko tabernearen langilea zan neurrian,

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
 Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
 Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

*Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
 Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala*

Telefonoa 94 454 07 88 Murgailde etorbidea, 25
 Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

t o k t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
 bigarren platera
 postrea
 ogia
 edaria

9€

Bestorene 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

*“Ahalegina egin
genduan herriko
tabernea txoko bat ez
izateko eta herritar
guztiei zabalik
egon zedin”*

*“Ziurgabetasun-egoera
baten bizi izan gara 11
urtean; kultur ekitaldiak
antolatzeari ixtea be
pentsau genduan”*

*“Gaur egun inori otuko
litxakio pentsatzea
herriko tabernak inongo
erakundea finantzatzeko
erabili diranik”*

ha ETaren alde behar egiteko erabilten ebalu argudiatu eben. Baina argi itxi zan Estatuak informazioa gura dauen moduan erabilten dauela. Ibon ez zalako herriko tabernearen langilea, baizik eta gainontzekook egin dogun moduan, han lagunakaz lotzen zan, zerbait hartzen eban... eta asteburuetan edo jaietan txandea egiten eban barran”, azaldu dau Arkaitzek. Julimendi herriko tabernearen egoera urte birik behin berrikusi egiten da, itxita jarraituko dauen ala barriro

zabaltzeko baimenik emongo dan erabakia hartzeko. “Tabernea itxita egon arren, alkaterearen beharra ahal izan dogun moduan mantentzen saiatu gara, kalean, jendeagaz berba egiten, batzarren bitartez, berbaldiren bat antolatuz... Hori herriko taberna bat lokal bat baino gehiago dan adierazgarria da; nortasun bat da, jenteak barnean daroazan sentimentu eta filosofia bat”.

Jenteak herriko tabernen gainean euki dauen eritxia urteetan zehar aldatu

Nahaste-borrastea esku artean

Herriko tabernen aurkako epaiketara Karlos Arranzi deitu deutsoe Derioko herriko tabernearen erantzule zibil moduan; Karlos Martinez de Morentini, Zamudioko herriko tabernearen erantzule zibil moduan; Jabi Agirrerri, Lezamako herriko tabernearen erantzule zibil moduan; eta Aitor Aiartzari, Larrabetzuko herriko tabernearen erantzule zibil moduan. Epaiketerearen lehenengo saiotik susmo onagaz urten bazan be, harek beste itxura bat hartu dauela uste dau orain Jabi Agirrek. “Fiskalak eskatu eban ordezkariok deklaratzeko eta epaileetarik bik onartu egin eben eskarea. Halanda be, gurea bezalako epaiketetan ez da arrunta halakorik gertatzea. Alkarrizketa hau egin orduko ez dakigu deklaratu beharko dogun ala ez”. Herriko tabernei ETA erakundea finantzatzea leporatzen jake, eta fiskalik oraindino zigor-eskaerarik egin ez duen arren, herriko tabernen ondarea biktimak indemnitzatzeko erabili gura dan susmoa gero eta indar handiagoa hartzen ari da.

Arkaitzen ustez, epaiketea orain hastea ez da kasualitatea. “Gaia linbo



antzeko baten lotu da 11 urtean, momentu egokian berrartzeko eta ezker abertzaleari beste atzaparkada bat emoteko. Momentu hori orain da, epaiketak aukerea emoten deusela-ko modu legalean beharrean dabilen jentea legeaz kanpo ixteko. Dana dala, urte askotan beharrean dabilen jentea da eta beharrean jarraituko dabe”. “Nik uste dot epaiketa hau ez dala gaur egun ulertzen, beste testuinguru baten gagozalako. Era berean, pentsetan dot epaileek esku artean nahaste-borraste bat dabela, gainetik kentzea gustauko litxakieena”, gaineratu dau Jabik.

egin dala uste dabe Jabik eta Arkaitzek. Eta hareen kontrako prozedura be lagungarria izan dala eritxi-aldaketa horretan. “Tabernara lehen sartzen ez zan jentea sartzen da orain, eta bezeroak baino ez ziranez be beste sentsibilitate bat adierazoten deuskue. Nik esango neuke gure egoera ulertu dabela. Ez dot uste gaur egun inori otuko litxakionik pentsatzea herriko tabernak inongo erakundea finantzatzeko erabili diranik”, esan dau Jabik.

Abaltaritz
HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaya)

DERIO

LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

48196 LEZAMA (Bizkaya) C/Elizkainak, 36

S.A.T. LEGU
SERVICIOS LEGALES Y DE REGISTRO

Tel.: 94 455 64 17 Tel.: 94 455 61 98

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIA PRIMITIBOA LOTERIEK ENPRESARIK

1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARRETUALDE, 139 • 48196 LEZAMA (Bizkaya) • TELEFONIA/TAX: 94 455 64 87

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Txatarrero-lanero entzuten zen XX. gizaldiaren amaierara arte gure kale eta baserri-bideetan. Orain, XXI. mendean, *txatarrero* baino ez zaie entzuten furgonetetako bozgorailuetatik. Ardi-lanaren baliorik ezak –Gabrielek esana– ekarri du eslogana laburtzea; ez da *lanerorik* entzuten.

Kontua da txatarra berba euskarakoa dela; gaztelerak euskaratik hartu duela. Era honetara dakar Real Academia Española hiztegiak: Chatarra. (Del vasc. txatarra). Hala eta guzti, txatar-biltzaile

Txatarrero!!!

horri ez zaio pasatu ere egingo burutik txatarra hitza espainolekoa ez denik.

Euskaldunok, oster, ez dugu erakusten txatarrero horren segurtasunik. Orintsu, lur barruko bikote bik itsasbattererra jo dugu, gure erreketako hainbeste ur non pilatu daitekeen jakin guran. Bidez goazela, Madariaga Dorretxea, Euskadiko Biodibertsitate Zentroa, agertu zaigu begi aurrean. Ederra gero! Eraikuntzaren sarreran, panelak, irudiak, eta testuak. Batek zioen: *Para las especies autóctonas: Bertako espezieentzat*. Berehala etorri zitzaizkidan pare bat ideia burutara.

1.-Euskararako zergatik ez *autoktono* berba, Euskaltzaindiak badakar Hiztegi Batuan. Grezierakoa da, *matematika* den modu berean.

2.-Bizkaierazko hitzunarentzat *bertakoa* hangoa da; *bertakoa*, hemengoa. Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan holaxe dakar: *Berton adlag Bizk.*, hau da, bizkaierakoa Euskara batuan erabiltzeko ze, Euskaltzaindiak: “bultzatu egin nahi ditu idazleak hitz horiek erabiltzera”.

Azken baten, zer erakusten digute, batetik, txatarrero horrek eta, bestetik, euskaldunok? Guk hiztegiatako berba asko emigrantetzat hartzen ditugun bitartean, erdaldunek lasai bezain ozen ekingo diotela txatarrero! oihukatzeari.



ZORIONAK!



Zorionak lehengusu horri.
Zu, beti gazte!



Zorionak amoma! 90 urte eta beti bezain
umoretsu. Mosu handi bat zure loben partez.
Maite zaitugu!
Oihana, Alaitz, Aratz, Ainhoa eta Oier



Zorionak Arriendarrei!
Parrandaren zain gagoz.
Mosu handi bana



BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor!!agunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- Hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera

Etxeko sukaldaritza

Maite Lekerika

Gaztaina-budina

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 500 g gaztaina
- Litro bat esne
- 8 arrautza
- 300 g azukera
- 150 g azukre

Prestetako errea:

Zartagin baten 150 g azukera karamelatuko dogu ur apur batez. Molde baten zabalduko dogu. Gaztainak ur eta gatz apur batez egosiko doguz. Zuritu eta txikitu egingo doguz eta puregailutik pasauko doguz. Esnea berotuko dogu eta, irakiten hasten danean, gaztaina-purea gehituko dogu. Azukerea eta arrautzak irabiau eta nahasketea apurka-apurka botako dogu esnetara eta gaztaina-purera, ziri batez nahastetan dogun bitartean. Nahasketea molde batera bota eta laban sartuko dogu. Han maria bainuan eukiko dogu, 170 gradutan, ordu lauren inguru. (Oharra: ahaleginduko gara ura ez irakiten eta beharrezkoa bada, ur hotza gehituko dogu).



Lupina zizakaz

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 gramoko lau lupina (zabalik)
- 500 g ziza
- Limoi baten zukua
- Orioa, gatz eta perejila
- 4 berakatz atal

Prestetako errea:

Zizak labarako azpil baten ipiniko doguz, orio eta gatz apur batez. Lupinak zizen gainean ipiniko doguz eta orio eta gatz apur bat botako deutsegu. Aluminiozko paperaz estaldu eta laban sartuko dogu. Han ordu lauren inguru eukiko dogu, 200 gradutan. Berakatzak frijituko doguz eta perejila eta limoi-zukua gehituko doguz. Arrainari gainetik botako deutsagu eta serbiduko dogu.

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINETEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldoguren 1 ind. 18-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 63 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Carniceria
Charcuteria
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1^a A.
DERIO

Telefona: 944 543 705

Euskal herriko d-generazioa

aritz eta nagel
aikor! 2013ko azaroaren 21ean



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Euli-giro, Uxue Alberdi.
- Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria, Dabid Anaut.
- Aiztoa eta Arkatza, Harkaitz Cano.
- Parisen bizi naiz, Koldo Izagirre.
- Aratustek Bizkaian, Igone Etxebarria.

LITERATURA: UMEAK ETA GAZTEAK

- Euli bat dut bihotzean, Leire Bilbao.
- Beldarren hegaldia, Irati Bediaga.
- Hiru dragoi, Olatz Bravo.
- Zazpikoloroa, Igor Elortza.
- Simon ipuinen munduan, Arrate Egaña.

MUSIKA

- Geure, Xabi Aburrizaga.
- Bidea eta denbora, Anari.
- 77, Bide ertzean.
- Ken Zazpi + Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
- Da, Zea Mays.

Sudokua

	3	4			9		6	
		6		8	2	1		
					5			4
	8		5					
				6				1
		2	8					
						9	5	
								3
	5	1	3	9	6		4	8

8	3	4	1	7	9	5	6	2
5	7	6	4	8	2	1	3	9
2	1	9	6	3	5	7	8	4
1	8	7	5	2	3	4	9	6
3	4	5	9	6	7	8	2	1
6	9	2	8	4	1	3	7	5
4	6	3	2	1	8	9	5	7
9	2	8	7	5	4	6	1	3
7	5	1	3	9	6	2	4	8

HARATEGIA + URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAN-ELABORAZIOA

Oskala ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...

Plater aurrekoizina

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia

94 453 16 17

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

GOIKO TABERNA

Taberna-jatetxea
Emiliانو

Musu berriak asteburuetan • Egurak erosi eta karta
Etxeko erretzeko platerak • Jantziak eta eskoletak
Rustika asteburuetan • Jantziak salgai

B.º Goralitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

Erakusketak

Sondika

- > HIESa. Abenduaren 2tik 16ra, liburutegian.
- > Gabonetako postalak. Abenduaren 18tik urtarrilaren 31ra, liburutegian.

Derio

- > Argazkiak, DAT argazki taldearen eskutik. Abenduaren 13tik urtarrilaren 18ra Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Abenduaren 9tik 20ra, Anguleri kultur etxean.

Hitzaldia

Sondika

- > 4x4 operazioa liburuaren aurkezpena, Xabier Amurizaren eskutik. Abenduaren 19an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili euskara elkarteak antolatua.
- > "Indian eskola bat eraikiz", Vicente Ferrer fundazioaren eskutik. Abenduaren 12an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Sondika

- > Iker Díaz ipuin kontalaria. Abenduaren 13an, 18:00etan, liburutegian.

Loiu

- > Organo kontzertua, Monica Melcovaren eskutik. Azaroaren 30ean, 12:30ean, San Pedro elizan.

Derio

- > Antzerkia, Kukuke antzerki eskolaren eskutik. Abenduaren 17an, 16:30ean, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Gabonetako postalen sariak banatzea eta ikuskizun bat. Abenduaren 20an, 17:30ean, eskolan.

Ikastaroak

Sondika

- > Udal ikastaroetan izena ematea. Abenduaren 9tik 13ra, liburutegian.

Derio

- > Aeromodelismo tailerra. Abenduaren 22an, 11:00etan, frontoian. SUBYKE klubak antolatua.

Zamudio

- > "Harri eta herri". Abenduaren 14an, 11:30ean, liburutegian.
- > Hirugarren adinekoek sakelako telefonoak erabiltzen ikastea, Gurutze Goriaren eskutik. Abenduaren 17an eta 19an, 17:30ean, Zamudiotarren.

Irteerak

Sondika

- > Arrolako Santamarina (Orozko). Abenduaren 15ean. Izena ematea abenduaren 12ra arte, liburutegian.

Derio

- > Urolako bidegorria. Abenduaren 15ean, 08:00etan, Nagusien Etxearen aurrean. Untza mendi taldeak antolatua.

Kirolak

Derio

- > Taekwondo erakustaldia. Abenduaren 14an, 10:00etan, kiroldegian. Doyan klubak antolatua.
- > Ezagutu eskupilota. Kirol jokoak. Abenduaren 16an, 17:00etan, frontoian. Atxiki pilota taldeak antolatua.
- > Gimnasia erritmikoa. Abenduaren 21ean, 18:00etan, kiroldegian. Miragarri taldeak antolatua.

Lehiaketak

Derio

- > Erakusleihen IX. txapelketa. Abenduaren 2tik 26ra. Danerik paraje elkarteak antolatua.

Bestelakoak

Derio

- > Gabonetako bingo berezia. Abenduaren 18an, Nagusien Etxean.
- > Tokiko agenda 21. Abenduaren 18an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Lezama

- > Turroi Eguna. Abenduaren 22an, Bizkargi mendian. Zorribike txirrindulari kirol elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > Azalerako ipuinak, 0 urtetik 3 urtera bitarteko umeentzat. Abenduaren 3an, 17:00etan eta 18:00etan, liburutegian.

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella
Milaire 6. behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokortzen
Auzokoen komunitateak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiar enbarko garbiketa
Busturak
Zahar bilera
Besaide Plaza, 1 - B* Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Derioko merkataria elkarteko kideen saltokietan erosketak egiteagatik
5 TXEKE ZOZKATUKO ditugu

¿500€ nahi?



Elkartekide diren 3 saltokietan egiten dituzun 10€tik gorako erosketengatik. Azaroaren 1tik abenduaren 26ra. Oinarriak saltokietan izango dira.

Berezko argia duen merkataritza

**TXORIERRIN
BERTON**

OHEBURUAK

OHEAK

KOLTXOIAK

OHE ETA SOMIER
ARTIKULATUAK

BESAULKIAK

SOFAK



SUITE DELUX

DESKANTSURAKO MARKA BEREZITUAK



Hästens
since 1852

JENSEN

Streeter

**SWISS
singer**

T

TEMPUR
SOLUCIONES Y ALTERNATIVAS QUE ALIVIAN LA PRESIÓN



Derio

Seminarioan bertan,
beheko solairuan
944 545 147

Leioa

Avanzada etorbidea 80
(Bilboko norabidean)
944 316 516

Eibar

Errebal 19
943 202 784



www.suitdelux.com